

<< Euskal Liburutegi-Sistema >>

A. Arzamendi

Área 1- Patrimonio Cultural

1. Arloa: Kultura Ondarea

(Euskarazko alea)

Febrero, 2003ko otsaila

EUSKAL LIBURUTEGI-SISTEMA

0. Aurkezpena

1. Liburutegi-sistema: aurrekoak

- 1.1. Definizioa**
- 1.2. Egitura**
- 1.3. Zerbitzuak**

2. Nazioarteko eta estatuko erreferentziak

3. Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien egoeraren diagnostikoa

- 3.1. Esparru juridikoa**
- 3.2. Liburutegien egoera**
- 3.3. Ondorioak**

4. Hausnarketa: Euskal Liburutegi Sistemaren beharren definizioa

- 4.1. Helburuak, helmugak eta lehentasunak**
- 4.2. Ekintza-ildoak**
- 4.3. Ekimenak**

5. Eranskina.

- 5.1. 1. eranskina: Autonomia-erkidegoetako legeria**
- 5.2. 2. eranskina: Dokumentazio-fondoak**
- 5.3. 3. eranskina: Udal-liburutegiak**
- 5.4. 4. eranskina: Euskal Liburutegi Sistema**
- 5.5. 5. eranskina: Bibliografia**

1. Liburutegi-sistema: aurrekoak

1.1. Definizioa

Liburutegi-sistema eremu geografiko jakin batean dauden liburutegi-zerbitzuen talde antolatua da. Liburutegi-sistemak publikoak edo pribatuak izan daitezke; azken horiek liburutegi-sistema batean txertatzeko, beharrezkoa da administrazioarekin dagozkien hitzarmenak sinatzea.

Liburutegi-sistema guztien funtsezko elementu gisa, beharrezkoa da administrazio aginpidedun batek liburutegi-zerbitzuen funtzionamendua arautzea. Dagozkion agintedunak emandako oinarritzko araudia eta sistemaren garapena bideratzen duten zuzendaritza- eta koordinazio-organoak beharrezkoak dira.

Liburutegi-sistemak liburutegien arloko hainbat gertakariren ondorioz sortzen dira. Oro har, konstante bat gertatu da, liburutegi publikoen historian batik bat; lehen fasean, liburutegiak sortu eta martxan jarri dituzte, eta, sortze-fase hori gainditzean, liburutegiek sistematan antolatzeke beharra ikusi dute.

Liburutegiak jakitun dira banan-banan ezin dituztela erabiltzaileen behar guztiak asebetze, eta elkarlanerako mekanismoak sortzen ahalegintzen dira.

Beste faktore garrantzitsu bat informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) garatzea izan da, informazio asko eskueran jartzen eta zabaltzen lagundu baitu. Horrek guztiak eragina izan du elkarlanerako mekanismoak ezartzean eta, ondorioz, zerbitzuen eskaintza hobetzen. Prozesu horren ondorio zuzena liburutegien eta dagozkien erakundeen arteko elkarlanaren beharra da. Elkarlan hori ez da mugatu behar herri/lurralde/erkidego mailara, nazio eta nazioarte mailara zabaldu baizik. Liburutegietara ere ez da mugatu behar, informazioaren eta dokumentazioaren munduarekin lotuta dauden beste sektore batzuetara ere hedatu behar da (artxiboak, dokumentazio-zentroak, museoak eta beste batzuk).

Liburutegien koordinatzeko eta elkarlanerako beharra, liburutegi-sistemak antolatzea bezala, nazioarteko hainbat manifestu eta jarraibidetan nabarmen agertzen da.

Unescoren liburutegi publikoei buruzko manifestuak (1994), fondoei, legeriari eta sareei dagozkien kapituluak, honela dio hitzez hitz:

Liburutegi publikoak, printzipioz, doakoa izan behar du. Liburutegi publikoa herri- eta nazio-agintarien ardura da. Legeria espezifikoko batek arautu behar du, eta gobernu nazionalak eta estatalekin finantzatu behar dute. Epe luzerako estrategia ororen funtsezko osagaia izan behar du, bai kulturean, bai literaturan, bai informazioa eskuratzean, bai heziketan.

Herrialdeko liburutegien koordinazioa eta elkarlana ziurtatzeko, plan estrategikokoak eta legeriak liburutegi-sare nazionala definitu eta sustatu behar dute, onartutako zerbitzu-estandarretan oinarritua (hitzarmenak).

Liburutegi publikoa beste liburutegi batzuekin harremanean (edo koordinatuta) diseinatu behar da; besteak beste, hauekin: liburutegi nazionalak, erregio-mailakoak, ikerketarako liburutegiak eta bereziak, eta eskoletakoak, prestakuntzakoak eta unibertsitateetakoak.¹

¹ <http://www.bcl.jcyl.es/correo/Correo28/Alcance28.html>

Antzekoa diote Europako Kontseiluak 68. ekitaldian, 2000ko urtarrilean, liburutegien legeria eta politika bideratzeko onartutako jarraibideek ere. Liburutegi eta Liburuzain Elkarteen Nazioarteko Federazioak (IFLA) ere onartu zituen jarraibideok, eta EBLIDAREN (Liburuzain Elkarte Profesionalen Europako Federazioa) Batzorde Betearazleak hartu zituen onartzeko.

Testuan behin eta berriz aipatzen da liburutegi-sistemak ezartzeko beharra:

“2. Bildumen garapenarekin zerikusia duten printzipioak

Liburutegiak, beren herrialdean, sistema batean edo batzuetan txertatuta egongo dira, bildumak eskuratu eta esportatzeko elkarlanean jarduteko eta beste erakunde batzuekin (kulturarekin, heziketarekin eta informazioarekin zerikusia dutenak) harreman estua izateko.

5. Agintariek eta erakundeek honako hau egin behar dute:

- *liburutegi-sektorearen arlo guztietan egitura argiak ezarri eta liburutegiak kudeatzeaz arduratzen diren organoen funtzioak, egitekoak eta ardurak zehaztu.*
- *hainbat eratako liburutegien arteko lankidetzak sustatzeko, beharrezko azpiegitura garatzen saiatu, nazio mailako informazio-eskaintzaren esparru orokorrean bete beharreko egitekoak eta zereginak aintzat hartuta.*

6. Liburutegi-zerbitzuak. Liburutegi-motak, zerbitzu-maila, errendimendu-adierazleak

- *Nazio mailako liburutegien agintari arduradunek, liburutegi-zerbitzuak ematerakoan, aintzat hartu behar dute informazio-politika nazionala eta nazioartekoa –artxibo, liburutegi eta museoaren sektoreak bateratzera bideratutakoa–.*

7. Liburutegien finantziakzioa. Administrazio zentrala eta toki-administrazioa

- *Liburutegien agintari arduradunek eta liburutegiek, elkarrekin, antolamendu-egiturak eta gainbegiratze- eta kontrol-mekanismoak garatu behar dituzte, liburutegi-zerbitzuetara bideratutako fondo publikoen errentagarritasunik handiena bermatzen dutenak; horretarako, errendimendu-ebaluazio egokiak egiteko eta hainbat liburutegi-motaren kalitatea kontrolatzeko bitartekoak diseinatu beharko dituzte”.²*

1.2. Egitura

1.2.1. Organoak

- **Liburutegien Kontseilua:** kontsultarako organoa da, aholkuak ematea du egiteko nagusia, eta era askotako liburutegien ordezkariak edo erkidegoko liburutegi-erakundeetakoak eta zerikusia duten beste arlo batzuetakoak osatzen dute.

² En: <http://www.bcl.jcyl.es/Correo42/>

- **Organo tekniko-administratiboak:** liburutegiak planifikatu, koordinatu, lagundu, etab. egiteaz arduratzen dira. Normalki, Kultura Sailak hartzen du ardura hori bere gain, liburutegi-zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori **liburutegi-politika** definitzeaz arduratzen da –liburutegi publikoetara bideratuta, batik bat–, hartutako eskumenen arabera. **Planifikazio- eta antolamendu-funtzioak** bitarteko zehatzetan islatzen dira, liburutegi-zerbitzuen garapen koordinatua bideratzera zuzendutako planetan. Liburutegi-mapa direlakoak dira; liburutegi publikoen zerbitzua une jakin batean nolakoa den jasotzen dute, eta, halaber, aurrez ezarritako epe batean izango duten egoera diseinatzen da. Agiri horrek garapen-ildo argi batzuk ezartzeko balio behar du, egiten dituzten administrazioen jarduerak eta sistema horretan sartuta dauden administrazioenak garatzeko.

Organo tekniko-administratiboen ohiko beste funtzio bat sisteman sartuta dauden **liburutegi guztien erregistroa** sortu eta mantentzea da, sistema kontrolatu eta kudeatzeko oinarrizko elementua. Gainera, erregistro horrek sistemako liburutegiei buruzko informazio estatistikoa jaso behar du.

1.2.2. Zentroak

Liburutegi-sistemek, oro har, liburutegi publikoak eta administrazioarekin hitzarmena sinatu duten erabilera publikoko liburutegiak arautzen dituzte. Egitura piramidala dute, eta erpinean, sistemaren buru gisa, **Liburutegi Nazionala** dago. Liburutegi nagusiaren funtzioak betetzen ditu horrek: lurraldeko liburu-ekoizpena bildu eta kontserbatu, bibliografia nazionala egin, katalogo kolektiboen bibliografia egin, laguntza-zerbitzu teknikoa eskaini, lankidetzaz bultzatu, liburutegien artean maileguak egin, etab.

Liburutegi Publikoen Sareari dagokionez, bi maila bereizten dira. Lehen mailan, Liburutegi Nazionalaren bitartekaria, lurralde-liburutegiak edo hiriburuetakoak daude, liburutegi-zerbitzu guztien funtzioak dituztenak eta, gainera, haien lurraldeko beste liburutegien aurrean, funtzio nagusiak hartzen dituztenak. Bigarren mailan udal-liburutegi publikoak daude, udalerriek erkidegoko gobernuaren laguntzarekin sortutakoak. Azkenik, liburutegi-zerbitzu ibiltariak ere badaude, eremu bakartuetarako. Horien titularra autonomia-erkidegoa edota lurraldea izan liteke.

Administrazioaren menpe egon edo ez, **erabilera publikoa** duten baina publiko jakin bati zuzendurik dauden zentroek osatzen dute beste bloke handia. Unibertsitateetako liburutegiak, unibertsitateetik kanpoko irakaskuntza-zentroetakoak, liburutegi espezializatuak eta erakundeen liburutegiak (Gobernua, sailak, Parlamentua, erakunde autonomoak).

1.3. Zerbitzuak

Ematen diren zerbitzuek ere egitura piramidala dute, goiko mailetan dauden zentroetatik beheko mailetan daudenetara. Beharrezkoa da dagozkien araudiak, eskaintzen diren zerbitzuak, kontraprestazioak eta hartzailleek bete beharreko arauak definitzea.

1.3.1. Jarduera-arloak:

1.3.1.1. Lehen maila: irakurketa publikoari laguntzeko oinarriko zerbitzuak.

- Azpiegitura eta ekipamendua: administrazio autonomikoak udalekin batera dihardu liburutegi publikoak ezartzeko eraikinak egiten eta egokitzen.
- Bildumaren garapena: liburutegi berriak irekitzeko sortak eskuratzeko diru-laguntzak eta bildumak mantentzeko edo handitzeko urteroko diru-laguntzak.
- Liburutegien kudeaketa informatizatzea sustatzea.
- Zerbitzuak hobetzea, esate baterako, Internetera konektatzea informazioa eskuratzeko zerbitzu publiko gisa.
- Pertsonala: oro har, liburutegiaren titular den administrazioaren menpe egoten da. Kontratazioa errazteko programak eskaintzeko aukera aztertu izan da, baita trebakuntza iraunkorrerako ikastaroak antolatzea ere.
- Irakurketa sustatzeko ekintzak eta kultur ekintzak, oro har.

1.3.1.2. Bigarren maila: Laguntza-izaera handiagoa duten zerbitzuak, irakurketa publikoa sustatzeko zerbitzuak behin ondo definituta daudenean:

- Katalogo kolektiboak: egin eta mantendu
- Hainbat euskarritan dagoen informazio bibliografikoa eta erreferentziazkoa eskueran jarri
- Kontserbatu eta digitalizatu
- Liburutegien arteko maileguak koordinatu

2. Nazioarteko eta estatuko erreferentziak

Nolabaiteko zailtasuna dago gure kasu zehatzerako baliagarri diren nazioarteko ereduak topatzeko; izan ere, oro har, herrialde garatueto liburutegi-sistemek tradizio eta garapen handiko liburutegi-egiturak dituzte. Bestalde, kontuan hartu behar dira konfigurazio politiko-administratiboari dagokionez dauden ezberdintasunak ere. Dena dela, Alemaniako *land*-etako liburutegiak adibide interesgarria izan litezke.

Alemaniako Errepublika Federala 16 *land*-ez osaturik dago, eta 14.000 liburutegi publiko eta 3.000 liburutegi zientifiko (unibertsitarioak eta espezializatuak) daude. Estatu federatu bakoitzak bere konstituzioa, bere parlamentua eta bere legeak ditu. Liburutegi-sistemari dagokionez, estatu bakoitzak bere sistema izan dezake. Oro har, liburutegiak lau mailatan sailkatzen dira, eskaintzen duten informazio-kopuruaren arabera.

- 1. maila: herri txiki eta ertainteko udal-liburutegi publikoak, informazioa zabaltzeko behar oinarrikoenei erantzuten dietenak. Horien artean daude bibliobusak.
- 2. maila: biztanle gehixeago dituzten herrietako udal-liburutegi publikoak, zerbitzu garatuagoak eskaintzen dituztenak.

- 3. maila: liburutegi espezializatuak, erregio-liburutegiak, hiri estatuetakoko udal-liburutegi batzuk (Berlin, Hamburgo) eta unibertsitate-liburutegiak. Ikerketarako liburutegiak dira eta informazio eta zerbitzu espezializatuagoa eskaintzen dute.
- 4. maila: liburutegi nazionalak: arrazoi historikoengatik, liburutegi nazionalaren funtzioa betetzen duten hiru liburutegi daude Alemanian: Deutsche Bibliothek, Staatsbibliothek zu Berlin (Berlin estatuko liburutegia) eta Bayerische Staatsbibliothek à Munich.

Autonomia-erkidegoetako liburutegiek, oro har, antzekotasun handiak dituzte egiturari eta antolatzeke moduari dagokienez. Oinarrian erabilera publikoko liburutegi-multzo bat dago (publikoak edo hitzarmen bidez atxikitako pribatuak), eta horien buru erregio-liburutegi bat. Bitarteko maila batean, probintziako koordinazioa bideratzen duten liburutegiak daude (kasu batzuetan, estatuaren liburutegi publikoak dira). Hiriburu batzuetan hiri-liburutegi nagusien funtzioa betetzen duten liburutegiak daude.

Lege guztiek jasotzen dute Liburutegien Kontseilua, horien misio nagusia aholkuak eta laguntza ematea da. Kultur sailek zuzentzen eta planifikatzen dute sistema, dela zuzenean, dela liburutegi-zerbitzu baten bitartez.

1. eranskinean, autonomia-erkidegoetan indarrean dagoen legeria ageri da³. Andaluzian indarrean dagoen legeria interesgarria da, Kataluniakoak, aldiz, egitura konplexua du (eskualde-liburutegiak, hiri-liburutegi nagusiak, etab.), baina Bartzelonako Liburutegien Kontsurtzioa –Diputazioak eta Udalak eratutako erakundea– kontuan hartzeko moduko eredu da.⁴

3. Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien egoeraren diagnostikoa

3.1. Esparru juridikoa

1979: 3/1979 Lege organikoa, abenduaren 18koa, EAeko Autonomia Estatutua. Autonomia Erkidegoak Estatuaren arauak eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartu du, ondare historikoa, artistikoa, monumentala, arkeologikoa eta zientifikoa babesteko. Autonomia Erkidegora transferitu dira Estatuarenak ez diren arxibo, liburutegi eta museoak. Liburutegi publiko guztien artean, Gasteizko liburutegi publiko probintziala da salbuespen bakarra, gainerako liburutegiek lege-esparru ezberdina dute.

1982: 90/1982 Dekretua, Euskadiko Liburutegi Erakundea (ELE) sortu da; erakunde horren bidez, Eusko Jaurlaritzak liburu eta liburutegien administrazioari dagozkion funtzioak betetzen ditu.

1983: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Lurralde Historikoen Legea. ELE indarrrik gabe geratu da, izan ere, LHLren ondorioz, diputazioek hartu dute beren lurraldeko liburutegiak antolatzeke ardura.

1990: 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondarearena, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu ditu udal-liburutegien eskumenak.

³ (<http://www.fundaciongsr.es/documentos>)

⁴ (<http://www.bcn.es/biblioteques>)

3.2. *Liburutegien egoera*

EAEko liburutegien egungo egoera nahiko dibertsifikatua da zentro-motari dagokionez⁵.

Udal-liburutegiak

EAEko udal-liburutegiak, udalek kudeatzen dituztenak, Euskal Liburutegi Sistema Nazionalean (Euskal Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez sortua) txertatuta daude. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren liburutegi-zerbitzuaren funtzio nagusietako bat ELSNn txertatuta dauden udal-liburutegiak kudeatzea da.

Guztira, 280 udal-liburutegi daude, eta tipologia oso desberdinetakoak aurki daitezke, kokatuta dauden herriko biztanle-kopuruaren, erabiltzaileei ematen dieten zerbitzuaren, liburutegia kudeatzeko informatizazio-mailaren eta abarren arabera. Guztien artean, hiriburuetako liburutegiak nabarmentzen dira, Donostiakoa (<http://www.donostia.org/gliburu.nsf>) eta Bilbokoa (<http://www.bilbao.net/euskera/villabil/cultura/ermb0000.htm>) batik bat; hain zuzen, tradizio luzeagatik, duten fondo-motagatik eta publikoari eskaintzen dizkioten zerbitzuengatik nabarmentzen dira. Gainera, hiru hiriburuetako udal-liburutegiek nork bere sarea dute, hirian barreiatuta.

Getxo, Santurtzi, Barakaldo eta Basaurin ere badituzte udal-liburutegiak eta sukurtsalak, eta nork bere sarea sortzeko asmoa dute⁶.

Foru-liburutegiak: hiriburuetan daude eta izaera bikoitza dute; ondare-liburutegiak eta liburutegi publikoak dira aldi berean.

- Bizkaiko foru-liburutegia: tradizio sendoa eta garapen handiko liburutegia da, XIX. mendearen bukaeran sortua. 1988an osorik birmoldatzen hasi ziren eta 2002an handitzeko proiektua egin dute. Katalogoa: http://bibliotecaforal.bizkaia.net/screens/mainmenu_baq.html.
- Gipuzkoako foru-liburutegia. Gaur egun Koldo Mitxelena liburutegia izena du. 1947an hasi zuen bere ibilbidea eta Foru Aldundiaren beraren lokaletan kokatuta egon izan da. 1993an eraman zuten egungo kokalekura, eta bi solairu hartzen ditu. Liburutegia punta-puntakoa izan da erabiltzaileei zerbitzu modernoak eskaintzen, eta 1995etik Internet zerbitzua eskaintzen du. <http://www.gipuzkoa.net/kultura/km/euskara/02biblie.htm>
- Ignacio Aldecoa kultur etxea. Gasteizko liburutegi publiko probintziala da eta Estatuaren esku dago oraindik. 1842an sortu zuten eta 1976an egungo egoitzara aldatu. Katalogoa: <http://www.mcu.es/cgi-bin/BPECGI?CM=BU&FM=form.html&UN=A14>.

Unibertsitate-liburutegiak

- Unibertsitate-liburutegien artean zaharrena Deustuko Unibertsitateko liburutegia da, 1888-1889 ikasturtean sortua. 1974an, Bizkaiko Ikaskuntzen Departamentuko liburutegia sortu zen, egun Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutua dena. <http://www.deusto.es/euskara/liburutegi/index.asp?apdo=7>)

⁵ Ikusi 2. eranskina, zenbait liburutegitako fondoei buruzko datu kuantitatiboak.

⁶ Ikusi konparaziozko taulak 3. eranskinean.

- Euskal Herriko Unibertsitateak Leioan du liburutegi nagusia, eta campusetako liburutegiak Gasteizen eta Donostian.
(<http://www.biblioteca.ehu.es/indice50.htm>.)

- Mondragon Unibertsitatekoa, 1997an sortua, da liburutegirik berriena.

Liburutegi espezializatuak: Eskaintza zabala dute bildumetan, zerbitzuetan eta publikoaren sarreran –bai librean, bai mugatuan–. Oro har, liburutegi eta informazio-zentro horiek gai bati edo zerikusia duten gai-sorta bati buruzko informazioa bildu, tratatu eta zabaltzen dute. Liburutegi gehienek arlo jakin batean diharduen kultur elkarte edo erakunderen batekin lotura dute. Liburutegi birtualak ere badaude, Eusko Ikaskuntzarena esate baterako.

Hona hemen liburutegi espezializatu garrantzitsuenen zerrenda:

- Sancho el Sabio Fundazioa (1964). Euskal gaietan espezializatutako liburutegia.
<http://www.fsancho-sabio.es/eusk/liburutegi.html>
- Euskaltzaindia. Euskararen hainbat alderditan, euskal literaturan eta, oro har, euskal kulturaren espezializatutako liburutegia. <http://www.euskaltzaindia.net>
- Labayru Ikastegiaren Euskal Biblioteka. Euskal gaietan espezializatua.
- Aranzadi Zientzi Elkarte. Historiaurrean, arkeologian eta etnografian espezializatua.
- HABE. Hizkuntzen tratamenduan espezializatutako liburutegia. Hizkuntzalaritza aplikatua, euskara eta material didaktikoen alorrak lantzen ditu. (<http://www.habe.org>)
- Eresbil. Euskal musikan espezializatutako liburutegia eta artxiboa.
- Goi-mailako Musika Kontserbatorioa. Musikan espezializatutako liburutegia, partitura-bilduma handia duena.
- Euskadiko Filmategia. Euskal zineman espezializatutako multimedia-zentroa.
- Lazkaoko beneditarren komentua. Batik bat euskal kulturaren espezializatutako liburutegia; argitaratutako egunkari, kartel, liburuxka eta abarren bilduma handi bat ere badu.
- Arantzazuko Santutegia. Teologian, historian eta euskal kulturaren espezializatutako ondare-liburutegia.
- Loiolako Santutegia. Ondare-liburutegia, liburu-bilduma handia duena; literaturan, teologian, elizaren historian, humanitateetan eta abarretan espezializatua.
- Gasteizko seminario diozesiarra. Teologian, humanitateetan eta erlijioan espezializatutako liburutegia.
- Donostiako seminario diozesiarra. Erlijioan, teologian, eta euskal kulturaren espezializatutako liburutegia.
- Sociedad Bilbainaren liburutegia. 1839an sortu zuten, eta euskal gaiei buruzko liburu-bilduma handi bat du.

- Museoetako liburutegiak: Liburutegi espezializatuen artean, gaur egun, museoetako liburutegiak indartzen ari dira (Bilboko Arte Eder Museoa, Guggenheim, Gasteizko Artium, etab.)
- Eusko Ikaskuntza. Bere web orrian liburutegi birtuala dauka, eta, berak argitaratutako lanez gain, zenbait datu-basetarako sarbidea eskaintzen du. <http://www.eusko-ikaskuntza.org/liburutegia/index.htm>

Administrazioaren liburutegiak:

- Eusko Jaurlaritza: Liburutegi Nagusia eta sailtako liburutegiak ditu, Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, Gasteizen, kokatuak denak. Gainera, HABEk, HAEEK eta beste erakunde autonomo batzuek ere beren liburutegiak dituzte.
- Eusko Legebiltzarra: dokumentazio-, liburutegi- eta artxibo-zerbitzua eskaintzen du.

Eskola-zentroetako liburutegiak:

“Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletako liburutegien egoerari buruzko txostenean” (2002ko martxoan egin, Kultura Sailak eta Hezkuntza Sailak eskatuta) jasota dauden datuen arabera, irakaskuntza ez-unibertsitarioan diharduten 612 bat zentrok (guztira 873 dira) liburutegi-zerbitzua eskaintzen dute zentroan bertan. Gainera, gero eta interes handiagoa antzematen da bai zerbitzuak bai azpiegiturak hobetzeko.

Euskal gaiei buruzko liburutegiak EAetik kanpo.

Euskal gaiei buruzko liburutegiak ez daude EAEn bakarrik, EAetik kanpo ere badaude euskal gaiei buruzko fondoak dituzten liburutegiak. Horien artean, nabarmentzekoak dira Nafarroako Foru Erkidegoa, Iparraldeko liburutegiak, Nevadako Unibertsitateko Basque Studies Library (Reno), euskal etxeetako liburutegiak, etab.

3.3. Ondorioak

Azaldutakoak azalduta, EAeko liburutegien egungo egoerak honako ezaugarri hauek dituela esan liteke:

- Era askotako zentroak eta, ondorioz, fondo- eta zerbitzu-mota asko.
- Liburutegi-politikari dagokionez, nabarmentzekoa da lau administrazio publikoren bat-egitea: udalerrriak, foru-diputazioak, Eusko Jaurlaritza eta Estatuko Gobernua.
- Hutsune larriak; araudirik eza eta zentroak sistema baten baitan antolatze falta. Adibide adierazgarri gisa, aipatzekoa da Euskal Liburutegi Sistema Nazionalaren (ELSN) eta lurralde historikoetako ondare-liburutegien arteko bereizketa.

Hain zuzen ere, liburutegien arteko kooperazioari dagokionez sortutako ekimen bakarra, Eusko Jaurlaritzatik bertatik sortua, 1992an “Euskal Katalogoa Aztertze Adu Batzordea” sortzea izan zen.

Batzorde horrek liburutegiak kudeatzeko sistemarik onena proposatu behar zuen katalogo hori egin eta liburutegietako katalogoak zabaltzeko beharrezko irizpideak aztertze, elebitasuna eta katalogazioan duen eragina ahaztu gabe gainera.

1992ko martxoaren 25etik 1994ko otsailaren 21era bitarte (orduan desegin zen) hainbat lan-bilera egin ziren.

Liburutegien arteko kooperazio-ekimen hori bertan behera utzi zenean, euskal liburutegi-sistema koordinatu eta sustatzeko aukera historikoa galdu zen.

Liburutegien arloan, kooperaziorako, trebakuntzarako eta abarretarako programetan zegoen hutsune administratiboari aurre egin nahian, hainbat ekimen garatu dira, hainbat erakunde edo elkartek sortuak. Hona hemen horietako batzuk:

- Euskal Liburutegia. 1989an, Eusko Legebiltzarraren liburutegiak Euskal Liburutegi Taldea deiturikoaren sorrera sustatu zuen (Legebiltzarraren liburutegiak berak, Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutuak, Lazkaoko beneditarren liburutegiak eta Sancho el Sabio Fundazioaren liburutegiak osatzen dutena).
- Prentsa digitalizatzeko proiektu kooperatiboa. 1992an, liburutegi-zentro askok –tartean Eusko Legebiltzarra, Sancho el Sabio Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritzaren liburutegi nagusia, Gasteizko Estatuaren liburutegi publikoa, Donostiako Koldo Mitxelena liburutegia eta Bilbo eta Donostiako udal-liburutegiak– sustatu zuten proiektu hori, EAEko herri- eta erregio-prentsa digitalizatzeko asmoz.
- Gipuzkoako Liburuzainen Elkarte. Gipuzkoako liburuzain-talde batek sortu zuen elkarte hau 1987an. Besteak beste, artxiboei, liburutegiei eta dokumentazioari buruzko ikastaroak antolatzea zuen helburu, liburuzainen trebakuntza hobetzeko.
- ALDEE (Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazainen Euskal Elkarte). Handik urte batzuetara, 1990ean, elkarte profesional hau sortu zen, egoitza Bilbon duena.
- Gerora, 2001ean, ALDEEK eta Gipuzkoako Liburuzainen Elkarteak bat egin zuten, eta trebakuntza-ikastaroak antolatzen jarraitu zuten.
- Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia. Elkarte profesional hau helburu jakin batekin sortu zen 1997an: euskararen erabileran normalizazioa lortzea liburutegi eta dokumentazio-zentroetan.⁷

Euskal bibliografiaren esparruan bi bilduma-lan handi nabarmendu behar dira, Jon Bilbaok eta Juan Mari Torrealdaik eginak.

- Jon Bilbao (1914-1994). 1968an *Eusko Bibliographia* argitaratzen hasi zen, euskal gaiei buruzko obren bibliografiarik handiena.

⁷ <http://www.eibar.org/joana-albret/ataria.htm>

➤ Joan Mari Torrealdai Nabea (1942-)

Orain 25 urte euskaraz produzitzen ziren liburuak aztertzen eta katalogatzen hasi zen. Urtero *Jakin* aldizkarian argitaratzen ditu bere ikerketen ondorioak, eta XX. mendean euskaraz idatzitako liburuen katalogoa argitaratu du⁸.

4. Hausnarketa: Euskal Liburutegi Sistemaren beharren definizioa

4.1. Helburuak, helmugak eta lehentasunak

➤ **Liburutegi Nazionala:** Euskal Liburutegi Sistemaren buruan liburutegi nazionalaren beharra ikusten da, funtzio hauek dituena:

Euskal Ondare Bibliografikoarekin zerikusia duten funtzioak

- a) Lege-gordailua eta jabetza intelektuala: garatu eta aplikatu
- b) Euskal produkzio bibliografikoari buruzko informazioa landu eta zabaldu.
- c) Euskadin argitaratutako lanak, herrialdeari buruzkoak eta euskaraz argitaratutakoak, bildu (ondare-liburutegiek ere betetzen dute funtzio hau).
- d) Ondare bibliografikoa kontserbatzen eta berritzen lagundu.
- e) Beste euskal liburutegi batzuetatik jasotako fondoak gorde.
- f) Euskal Ondare Bibliografikoaren ezagutza zabaldu.

Euskal Liburutegi Sistemarekin zerikusia duten funtzioak

- a) EAEn aplikatzeko araudi tekniko bibliografikoa egiteko lana koordinatu. Euskaraz katalogatzeko araudi bat egin. MARC formatua garatu eta euskarazko katalogazioaren behar eta ezaugarrietara egokitu.
- b) Autoritateen datu-base ofiziala, elebiduna/eleanitza sortu eta mantendu.
- c) Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa garatu eta mantendu.
- d) Gai interesgarriei buruzko ikerketa-proiektuak egin Euskal Liburutegi Sistemarentzat.
- e) Profesionalentzat topaketak, bilerak, mintegiak, etab. antolatu.

Liburutegi Publikoen Sarearekin zerikusia duten funtzioak

- a) Liburutegien arteko maileguak planifikatu eta koordinatu.
- b) Herri mailako informazio-fondoak sortu eta mantentzea sustatu.

⁸ XX. mendeko euskal liburuen katalogoa

Euskal Liburutegi Digitalarekin zerikusia duten funtzioak

- a) Argitalpen digitalak, dokumentu elektronikoak, web orriak, datu-baseak eta abar tratatu eta kontserbatu.
 - b) Ondare bibliografikoa digitalizatzeko programa.
 - c) EAEko katalogoa egin eta mantendu; gerora, hitzarmenak sinatuta, Nafarroako, Iparraldeko, Renoko, euskal etxeetako, Georgiako eta abarretako liburutegiak ere sar daitezke.
- **Kultura Saileko liburutegi-zerbitzua:** Liburutegi-zerbitzuari dagokienez, funtzioak Liburutegi Publikoen Sarearekiko sustatu beharko lirateke.
- a) Liburutegi-politika definitu, batik bat liburutegi publikoei zuzendua, eskumenen arabera
 - b) Planifikazioa eta koordinazioa: beharrak zehaztu eta helburuak finkatu. Liburutegien mapa egin.
 - c) Sisteman sartuta dauden liburutegi guztien erregistroa egin eta mantendu.
 - d) Informazio estatistikoa bildu eta esplotatu.
 - e) Azpiegitura eta ekipamendua
 - f) Bildumaren garapena
 - g) Informatizazioa sustatu
 - h) Irakurketa publikorako katalogo kolektiboa egin
 - i) Etengabeko trebakuntza
 - j) Hitzarmenak eskoletako liburutegiekin
- **Foru-diputazioen liburutegiak:** erakunde arteko kudeaketa-eredua proposatzen da lan honen bitartez, lurraldeko liburutegi publikoen sareak funtzionatuko duela ziurtatzeko.
- a) Liburutegi-kooperazioaren funtzioa hiriburuekin
 - b) Lurraldearen ondarearekin zerikusia duten funtzioak: Lege Gordailua bildu, tratatu eta kontserbatzea.
 - c) Katalogazio zentralizatua
 - d) Katalogo kolektiboan parte hartzea
 - e) Lurraldeari buruzko informazio eta erreferentzia bibliografikoa
 - f) Liburutegien arteko mailegua

g) Liburutegi-zerbitzu ibiltariak

➤ **Hiriburuetako udal-liburutegiak:** hiri-liburutegi nagusiak dira, sareak dituzte eta, arlo batzuetan, buru-funtzioak betetzen dituzte.

- a) Liburutegi-kooperazioaren funtzioa foru-diputazioen liburutegiekin.
- b) Udal-sareen antolamendua arautzea: araudia.
- c) Katalogazio zentralizatua.
- d) Katalogo kolektiboan parte hartzea.
- e) Irakurketa publikoarekin zerikusia duten funtzioak: haurrak eta gaztetxoak, haurren eta helduen artean irakurketa sustatzeko kanpainak.
- f) Hitzarmenak eskoletako liburutegiekin.

➤ **Hiriburuetako ez diren udal-liburutegiak:** egun Kultura Sailaren liburutegi-zerbitzuaren laguntza teknikoaren bidez betetzen dituzten funtzioak.

- a) Informazio bibliografikoa eta erreferentziakoa, hainbat euskarritan dagoena, lehen mailako sarbidea.
- b) Katalogoak informatizatu.
- c) Haurrak eta gaztetxoak irakurtzera animatzeko ekintzak.
- d) Harremanak eskoletako liburutegiekin.
- e) Etengabeko trebakuntza.

4.2. *Ekintza-ildoak: Euskal Liburutegi Sistema egituratzeko proposamena.*

Euskal Liburutegi Sistemaren egitura bi organo nagusik eta dagozkien liburutegi-zentroek osatuko lukete⁹.

Organoak bi izango lirateke: Liburutegien Euskal Kontseilua eta Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzua.

Liburutegien Euskal Kontseilua: Kultura Sailaren mendeko organoa, liburutegiei buruzko kontsultei erantzun eta aholkuak emateko. Saileko bertako ordezkariak eta parte hartzen duten alor guztietako ordezkariak/zuzendariek osatuko lukete (udal-administrazioa, lurralde-administrazioa, unibertsitateetako liburutegiak, espezializatuak eta elkarte profesionalak –Aldee eta Albret Mintegia esate baterako–).

⁹ Ikusi 4. eranskineko eskema.

Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzua: 34/2002 dekretuan, 2002ko otsailaren 5ekoan, Kultura Sailaren egitura organikoa zehazten duenean, Liburutegi Zerbitzuaren funtzioak deskribatzen dira¹⁰, batik bat, liburutegi publikoen sareari zuzenduak.

Liburutegi-zerbitzu hori Euskal Liburutegi Sistemaren zutoin nagusia da. Gaur egun, Sistema Nazionalako liburutegiek –nagusiki udal-liburutegiak– ematen duten zerbitzua administrazioaren zerbitzu oinarritzat eta garrantzitsuenak da.

EAEko 250 udalerrietatik 212k liburutegi-zerbitzua eskaintzen diete herritarrei. Liburutegi-zerbitzuak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, eta horrek zerbitzua sendotzea eskatzen du.

Azken urteotan ahalegin handia egin da liburutegien katalogoak informatizatzeko; gaur egun, 152 liburutegi daude informatizatuta. Eta 2000tik pauso garrantzitsua eman da udal-liburutegien katalogo kolektiboa egiteko.

Informatizazioarekin zerikusia duten gaiez gain, liburutegi-zerbitzuan beste programa batzuk lantzen dira, besteak beste, liburutegiei fondo bibliografikoak ematea eta azpiegiturretan laguntzea, guztia diru-laguntzetarako aginduen bidez.

Dena dela, indarrean dauden aginduen diru-kopuruak gehitzeko beharra dago, bai eta dauden beharren arabera agindu berriak sortzeko ere.

Liburutegi-zentroei dagokienez, 4.1 puntuan **Liburutegi Nazionalaren** funtzioak (sistemaren burua) deskribatu ditugu lehen. Liburutegi Nazionalaren funtzio nagusien artean, nabarmentzekoa da katalogo kolektiboa egin eta mantentzea, baita Euskal Liburutegi Digitalarekin zerikusia duten funtzioak ere.

Liburutegi Nazionalaz gain, udal-liburutegiak ere Euskal Liburutegi Sistemaren barruan egongo dira. Foru-diputazioen liburutegiei dagokienez, hitzarmen bidez Sistemaren sartzeko aukera dute, erakunde arteko kudeaketa-eredua proposatzen zaie lurraldeko liburutegi publikoen sarea garatzeko. (Ikusi txosten honetako 4.1. puntua).

Unibertsitate-liburutegiek, liburutegi espezializatuek, administrazioaren liburutegiek eta eskola-liburutegiek ere badute Sistemaren sartzeko aukera, dagozkien hitzarmenak sinatuta.

Liburutegi Nazionalak bultzatutako **Katalogo Kolektiboa** Euskal Liburutegi Sistemaren produktu nagusia izango da, Sistemako liburutegi guztien datu-baseak eskura jarriko baititu, Euskal Liburutegi Digitala barne. Gainera, EAetik kanpo dauden euskal liburutegiak ere sar daitezke Katalogo Kolektibo horretan; hain zuzen, Nafarroan, Iparraldean, Renon, euskal etxeetan, etab. daudenak.

Katalogo Kolektiboak erakundeen eta euskal zentroyen ondare-aberastasun osorako sarbiderako abiapuntua izan behar du, eta, gainera, partaide diren liburutegien zabalkunde-bidea.

¹⁰ <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2002/05/0203118a.pdf>

4.3. *Ekimenak*

Txosten honetan, Euskadiko liburutegien egoera eta diagnostikoa aurkezten saiatu gara. Gure ikuspuntutik, ez da Euskal Liburutegi Sistema sustatu eta egituratzeko beharra soilik justifikatzen, baita presa edo premia ere.

Helburu hori erdiesteko, ezinbestekoa da honako hamaika ekimen hauek garatu eta abian jartzea:

- Liburutegien Euskal Legea
- Euskal Liburutegi Nazionala sortu eta garatu
- Liburutegien Euskal Kontseilua sortu
- Liburutegi publikoen katalogoak informatizatu
- Euskal Liburutegi Sistemarako txartel bakarra
- Euskal Liburutegi Sistemaren on line katalogo kolektiboa egin
- Irakurketa sustatzeko kanpaina
- Liburutegien esparruko alderdi teknikoetan euskara landu
- Material bibliografikoak eta beste batzuk digitalizatzeko programak
- Foru-liburutegien protagonismoa lurraldeko liburutegi publikoen sarean.
- Liburuzaintzako etengabeko trebakuntza eta diplomatura bat sortu

Kulturaren Euskal Kontseilua esparru egokia da, azkenik, euskal liburutegien sektoreak hainbeste urtean jasan duen utzikeria gainditzeko, administrazioen arteko koordinazioa nagusituko den garaia hasteko eta, horrela, elkarlana indartu eta proiektu komunak martxan jartzeko (bai sektoreko profesionalentzat, bai herritar ororentzat onuragarriak direnak). Ezin dugu ahaztu liburutegiak funtsezko elementuak direla herritar guztien (liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuen benetako onuradunak) eskura dagoen informazioaren gizartean.

5. Eranskina

1. eranskina: *Autonomia-erkidegoen legeria*

Andaluzia. 230/1999 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Andaluziako Liburutegi Sistema onartzen duena. (BOJA, 151. zk., 1999ko abenduaren 30ekoa). 8/1983 Legea, azaroaren 3koa, Andaluziako liburutegiei buruzkoa.

Aragoi, 8/1986 Legea, azaroaren 19koa, Aragoiko liburutegiei buruzkoa. 1996ko martxoaren 8ko Agindua, Aragoiko liburutegi publikoen funtzionamenduaren eta barne-erregimenaren araudia onartzen duena.

Asturias. 65/1986 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Asturiasko Printzerrian liburutegi-zerbitzuak sustatzeko eta koordinatzeko jarduera-arau orokorrak ezartzen dituena. 1987ko otsailaren 25eko Ebazpena, Asturiasko Printzerriko liburutegi eta kultur etxeen araudia onartzen duena. 1998ko apirilaren 28ko Ebazpena, Asturiasko Printzerriko liburutegi eta kultur etxeen araudia aldatzen duena.

Kantabria. 3/2001 Legea, irailaren 25ekoa, Kantabriako liburutegiei buruzkoa.

Gaztela-Mantxa, 1/1989 Legea, maiatzaren 4koa, Gaztela-Mantxako liburutegiei buruzkoa. 1991ko urriaren 4ko Agindua, udal-liburutegi publikoak sortzeko arauak ezartzen dituena.

Gaztela eta Leon, 9/1989 Legea, azaroaren 30ekoa, Gaztela eta Leongo liburutegiei buruzkoa. 176/1990 Dekretua, irailaren 13koa, Gaztela eta Leongo erkidegoan lege-gordailua erregulatzeko arauak ezartzen dituena. 37/1991 Dekretua, otsailaren 28koa, Gaztela eta Leongo Liburutegien Kontseiluaren egitura eta funtzionamendua arautzen duena. 56/1991 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Gaztela eta Leongo Liburutegiaren egitura eta funtzioak zehazten dituena. 214/1996 Dekretua, irailaren 13koa, Gaztela eta Leongo Liburutegi Sisteman sartuta dauden zentroen eta liburutegi-zerbitzuen arautegia onartzen duena. 250/1996 Dekretua, azaroaren 7koa, probintzia-liburutegien sistemari dagozkion funtzioetarako probintzia-diputazioak eskuordetzen dituena. 263/1997 Dekretua, abenduaren 26koa, Gaztela eta Leongo erkidegoak kudeatzen dituen Estatuaren liburutegi publikoen zerbitzuak antolatzeko barne-erregelamendua onartzen duena.

Katalunia. 124/1999 Dekretua, maiatzaren 4koa, irakurketa publikorako Kataluniako Sistemaren zerbitzuei eta pertsonalari buruzkoa. 4/1993 Legea, martxoaren 18koa, Kataluniako Liburutegi Sistemari buruzkoa.

Extremadura, 6/1997 Legea, maiatzaren 29koa, Extremadurako liburutegiei buruzkoa. 134/1998 Dekretua, azaroaren 17koa, Liburutegien zentroak eta zerbitzuak Extremadurako Liburutegi Sisteman sartzeko prozedura ezartzen duena.

Galizia. 14/1989 Legea, urriaren 11koa, liburutegiei buruzkoa. 313/1986 Dekretua, urriaren 16koa, Galiziako liburutegien antolamenduari eta koordinazioari buruzkoa, 38/1991 Dekretua, otsailaren 1ekoa, mailegurako liburutegi ibiltariak arautzen dituena. 1992ko otsailaren 14ko Agindua, 38/1991 Dekretua garatzen duena. 24/1995 Dekretua, urtarrilaren 20koa, liburutegi-zentro finkoak arautzen dituena. 1995eko azaroaren 21eko Agindua, 24/1995 Dekretua garatzen duena, Kulturako Conselleriarekin batera udal-liburutegiak sortzeari dagokionean, eta Galiziako Liburutegien Sarean sartzeari arautzen duena.

Madril: 19/1989 Legea, urriaren 5ekoa, Madrilgo Autonomia Erkidegoko liburutegiei buruzkoa.

Murtzia, 7/1990 Legea, apirilaren 11koa, Murtziako erregioko liburutegiei eta ondare bibliografikoari buruzkoa.

Errioxa, 4/1990 legea, ekainaren 29koa, Errioxako liburutegiei buruzkoa.

Valentzia, 10/1986 Legea, abenduaren 30ekoa, Valentiako Erkidegoko liburutegien antolamenduari buruzkoa.

2. eranskina

Bizkaiko Foru Aldundia	175.000 bol. - hemeroteka historikoa (bilbao.net) (bibliotecaforal.bizkaia.net)	200.000 bol. (bizkaia.net)
Euskal Herriko Unibertsitatea	788.792 bol.. - 15225 aldizk.. - 2.278 map. - 60.000 fot./diap. - 62 mikrof. - 4.000 mat. fot. - 6.000 bid. 1.500 cd-rom (bilbao.net)	873.116 bol. - 17.000 aldizk. (10.000 en curso) - 2.300 map. - 63.000 fot /diap. - 70.000 mikroforma - 4.300 mat. fot. - 6.900 bid. - 3.000 cd-rom. (biblioteca.ehu.es)
Deustuko Unibertsitatea	600.000 volumes. 5.350 titles of periodicals and several special material, such as maps, microforms, CD-ROMS, etc. (Unesco) Added: 2001-07-05	
Bidebarrietako udal-liburutegia	120.000 l. - 500 aldizk. - 833 bid. 169 cd-rom (bilbao.net)	Guztira: 224.700 Bidebarrieta: 162.545 (Zerbitzuaren estatistikak-2001)
Azkue liburutegia (Euskaltzaindia)	60.000 bol. (bilbao.net)	
Donostiako udal-liburutegia	Nagusia: <ul style="list-style-type: none"> • Orokorra. 23.371 lib. - 2.142 cd - 300 cd-rom - 617 bid. - 275 aldizk. • Haurrak. 15.000 lib. - 694 bid. - 65 kas. - 135 cd-rom . 12 cd - 22 aldizk. • Zentr. Dok. 4.500 bol. - 42 aldizk. • Sek. Historikoa - 64.000 bol. (donostiakultura.com)	206.929 (Zerbitzuaren estatistikak- 2001)
Koldo Mitxelena	160.000 bol. - 4.000 eskuiz. - 45.000 mikrof. - 1.600 aldizk. - 9.000 audi. (gipuzkoa.net/kultura/km) data: 00/09/23	

Gasteizko udal-liburutegia	82.461 (Zerbitzuaren estatistikak-2001)	
Sancho el Sabio	100.000 mon. - 6.500 aldizk. - 14.000 fot. - familia-artxiboak (Liburutegiaren buletina. Iturria: Carmen Gómez) 2000ko urria	
Gasteizko kultur etxea	121.895 (Rebeca.- 2002ko urriaren 22a)	

